## Pertsonen arteko harreman berriak

# NESKEN ETA MUTILEN ARTEKO PAREKIDETASUNA AZTERGAI

## Jendarte eredu berria eraikitzen

Historian zehar garatu diren hezkuntza –ereduak sistema patriarkalaren arabera finkatutako genero maskulino eta femeninoaren hierarkizazioan oinarritu izan dira , eta hierarkizazio horrek eragin handia izan du hezkuntzan . Izan ere, hezkuntza da sistema guztiek , zenbat pentsaera-ereduetan eta portaerazko jarraibideetan jarraiki pertsonak hezteko duten baliabiderik garrantzitsuenetarikoa.
Emakumeen kontrako indarkeriaren oinarria den diskriminazio sexista ekiditeko, beste batzuen artean, ikastetxeetan irakatsi eta ikasteko prozesuen bidez zer nolako hezkuntza-ereduak garatzen diren aztertzea eta lan ildoak lantzea ezinbestekoa da. Azken hauek bideak izan behar dute, identitate pertsonalak oinarrian dituen independentzia, autonomia eta nork bere burua baieztatzea garatuz, pertsonaren garapen integrala bermatuko duen hezkuntza lortzeko, ongi izate pertsonal eta soziala lor dezagun.
Azkeneko hamarkadetan emakume askok egindako lanaren esker, gaur egun Hezkidetzaz hitz egin dezakegu, hau da Hezkuntza Parekidea, eta hau da benetako Hezkuntza kalitatea eta hobekuntza lortzeko irizpideak ematen dizkiguna.

Zeuen ikastetxean neska eta mutilen arteko parekidetasunaren alde egiten duzuena eta hobetu beharko zenuketena aztertzen lagunduko dizue hemen aurkezten dugun erremintak.
Item hauei emandako puntuazioek adieraziko digute zeintzuk diren gai honekiko gure ikastetxeak dituen alde sendoak eta zeintzuk ahulak. Ahulen artean aukeratu beharko ditugu zeintzuk izango diren ikastetxeko hurrengo lan ildoak markatuko dituztenak.

| CURRICULUM IZKUTUA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Irakasleok orokorrean gure aurreiritzi sexistak aztertu ditugu | | | | | Irakasleok orokorrean gure aurreiritzi sexistak ez ditugu aztertu |
| Irakasleon estereotipo sexistek ikasleen sinismenetan eta bizitzetan eragina dute. Horregatik garrantzitsua da aztertzea. | | | | | Irakasleon estereotipo sexistek ikasleen sinismenetan eta bizitzetan ez dute eraginik. Horregatik ez dira aztertu behar |
| Irakasleon aurreiritzi sexistek ikasleetaz izan ditzakeen itxaropenetan eragina dute. | | | | | Irakasleon aurreiritzi sexistek ikasleetaz izan ditzakeen itxaropenetan ez dute.eraginik. |
| Garrantzitsua da femeninoak deituriko balioak berreskuratzea, giza garapena hobetzeko positiboak direlako. | | | | | Femeninoak deituriko balioak ez dira berreskuratu behar, giza garapenerako ez dute ezer aportatzen. |
| **BALIO-HEZKUNTZA** | | | | | |
| Pertsonen garapen etikoa, balio-hezkuntza, hezkidetza. zeharkotasunari buruzko nahiko liburu daude ikastetxeko liburutegian | | | | | Pertsonen garapen etikoa, balio- hezkuntza, hezkidetza. zeharkotasunari buruzko libururik ez daude ikastetxeko liburutegian |
| Irakasleok horrelako liburuak irakurtzen ditugu. Horrelako gaietaz formatua dago | | | | | Irakasleok ez dugu horrelako libururik irakurtzen . Horrelako gaietaz ez du formaziorik. |
| Pertsonaren garapen integralerako oinarrizkoak diren gaitasunak zehaztu ditugu ikastetxean | | | | | Pertsonaren garapen integralerako oinarrizkoak diren gaitasunak ikastetxean ez ditugu zehaztu |
| Ikasleek bizitzen ikas dezaten tutoretzak, AIA eta arloak nola planifikatu aztertu dugu | | | | | Ikasleek bizitzen ikas dezaten tutoretzak, AIA eta arloak nola planifikatu ez dugu aztertu. Bakoitzak ahal den ondoena egiten dugu. |
| Kultur femeninoan garatutako balio positiboak barneratuta daude ikastetxeko balio sisteman. | | | | | Kultur femeninoan garatutako balio positiboak ikastetxeko balio sisteman ez daude barneratuta |
| Kultur maskulinoan garatutako balio positiboak barneratuta daude ikastetxeko balio sisteman. | | | | | Gizartean dauden balore maskulino negatiboak dira nagusi eskolan |
| Familiak balio-hezkuntza izateko baliabideak jarri ditugu | | | | | Familiak balio hezkuntza izateari ez diogu garrantzirik ematen |

| ESPAZIOAREN ERABILERA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| **IKASLEAK** | | | | | |
| Komunak diren lekuetan berdin ikusten dira neskak zein mutilak | | | | | Mutilak gehiago mugitzen dira eta komunak diren lekuak gehiagotan hartzen dituzte |
| Komunak diren lekuetan berdin ikusten dira neskak zein mutilak | | | | | Neskak gehiago mugitzen dira eta komunak diren lekuak gehiagotan hartzen dituzte |
| Gelan espazioa berdin betetzen dute neskek zein mutilek | | | | | Mutilak gehiago mugitzen dira eta gelan espazio handiago betetzen dute |
| Gelan espazioa berdin betetzen dute neskek zein mutilek | | | | | Neskak gehiago mugitzen dira eta gelan espazio handiago betetzen dute |
| Kirol- guneetan mutilak zein neskak berdin egoten dira | | | | | Kirol- guneetan batez ere mutilak egoten dira |
| Kirol- guneetan mutilak zein neskak berdin egoten dira | | | | | Kirol- guneetan batez ere neskak egoten dira |
| Talde-ordezkariak batez ere neskak dira | | | | | Talde-ordezkariak batez ere mutilak dira |
| Gune publikoetan neskek zein mutilek maila berean parte hartzen dute | | | | | Gune publikoetan neskek parte hartzen dute bigarren maila batean |
| Gune publikoetan neskek zein mutilek maila berean parte hartzen dute | | | | | Gune publikoetan mutilek parte hartzen dute bigarren maila batean |
| Gune publikoetan bai mutilek bai neskek lasai asko ager daiteke, beren gorputzarekiko komentario sexistak eta kritikak jasotzeko ez dute inongo arriskurik | | | | | Gune publikoetan mutilek arrisku handia izaten dute beren gorputzarekiko komentario sexistak eta kritikak jasotzeko |
| Gune publikoetan bai mutilek bai neskek lasai asko ager daiteke, beren gorputzarekiko komentario sexistak eta kritikak jasotzeko ez dute inongo arriskurik | | | | | Gune publikoetan neskek arrisku handia izaten dute beren gorputzarekiko komentario sexistak eta kritikak jasotzeko |
| Lekuen apainketaz bai neskak bai mutilak berdin arduratzen dira | | | | | Mutilak izaten dira lekuen apainketaz arduratzen direnak |
| Lekuen apainketaz bai neskak bai mutilak berdin arduratzen dira | | | | | Neskak izaten dira lekuen apainketaz arduratzen direnak |
| Espazioaren erabilera parekidea izaten da, inongo arazorik gabe | | | | | Espazioaren erabilera parekidea izateko mutilek borrokatu behar dute |
| Espazioaren erabilera parekidea izaten da, inongo arazorik gabe | | | | | Espazioaren erabilera parekidea izateko neskek borrokatu behar dute |
| **IRAKASLEAK** | | | | | |
| Irakasleok ahaleginak egiten ditugu espazioaren erabilera parekidea ikasleekin lantzeko | | | | | Irakasleok ez ditugu ahaleginik egiten espazioaren erabilera parekidea ikasleekin lantzeko |
| Irakasleok espazioaren erabilera desorekatuaz jabetzen gara | | | | | Irakasleok espazioaren erabilera desorekatuaz ez gara jabetzen |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Arazo honek, gizartean dagoenaren isla denez, irakasleok kezkatzen gaitu | | | | | Arazo honek ez gaitu irakasleok kezkatzen, ez du inongo eraginik eta |
| Berdin baloratzen dugu neska edo mutila izatea gelaren garbiketaz arduratzen dena. | | | | | Mutila denean gelaren garbiketaz arduratzen dena, berezia izateagatik laudatu egiten dugu Neska bada, berriz, ez dugu ikusten hori egiteko beharrik. |
| Espazioaren erabilera parekidea izateko arauak daude, | | | | | Espazioaren erabilera parekidea izateko ez dago inongo araurik |

| **ESKOLA-DENBORAREN ERABILERA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **IKASLEAK** | | | | | |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Gelan mutilek zein neskek eskatzen duten arreta antzekoa da | | | | | Gelan mutilek batez ere eskatzen dute arreta handia |
| Gelan mutilek zein neskek eskatzen duten arreta antzekoa da | | | | | Gelan neskek batez ere eskatzen dute arreta handia |
| Kirol gunetan neska zein mutilak berdin egoten dira | | | | | Kirol gunetan denbora gehiena mutilak egoten dira |
| Kirol gunetan neska zein mutilak berdin egoten dira | | | | | Kirol gunetan denbora gehiena neskak egoten dira |
| Gune publikoetan neskek zein mutilek antzeko denbora egiten dute | | | | | Gune publikoetan denbora gehiena mutilak agertzen dira |
| Gune publikoetan neskek zein mutilek antzeko denbora egiten dute | | | | | Gune publikoetan denbora gehiena neskak agertzen dira |
| Beste pertsonen beharrei erantzuten dutenak mutilak zein neskak berdin izaten dira | | | | | Beste pertsonen beharrei erantzuten dutenak batez ere mutilak izaten dira |
| Beste pertsonen beharrei erantzuten dutenak mutilak zein neskak berdin izaten dira | | | | | Beste pertsonen beharrei erantzuten dutenak batez ere neskak izaten dira |
| Tradizionalki maskulinoak izan diren kiroletan neskak zein mutilak berdin egoten dira. | | | | | Tradizionalki maskulinoak izan diren kiroletan batez ere mutilak egoten dira. |
| Tradizionalki maskulinoak izan diren kiroletan neskak zein mutilak berdin egoten dira. | | | | | Tradizionalki maskulinoak izan diren kiroletan batez ere neskak egoten dira. |
| Tradizionalki femeninoak izan diren kiroletan neskak zein mutilak berdin egoten dira. | | | | | Tradizionalki femeninoak izan diren kiroletan batez ere mutilak egoten dira |
| Tradizionalki femeninoak izan diren kiroletan neskak zein mutilak berdin egoten dira. | | | | | Tradizionalki femeninoak izan diren kiroletan batez ere neskak egoten dira |
| Bai neskek, bai mutilek dagokien denbora erabiltzeko ez dute inongo arazorik | | | | | Dagokien denbora erabiltzeko mutilek borrokatu behar dute |
| Bai neskek, bai mutilek dagokien denbora erabiltzeko ez dute inongo arazorik | | | | | Dagokien denbora erabiltzeko neskek borrokatu behar dute |
| Eskola lanerako eta aisialdirako neskek zien mutilek erabiltzen duten denbora antzekoa da. | | | | | Eskola lanerako mutilek denbora gehiago erabiltzen dute aisialdirako baino. |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| Eskola lanerako eta aisialdirako neskek zien mutilek erabiltzen duten denbora antzekoa da. | | | | | Eskola lanerako neskek denbora gehiago erabiltzen dute aisialdirako baino. |
| Eskola lanerako eta aisialdirako neskek zien mutilek erabiltzen duten denbora antzekoa da. | | | | | Aisialdirako mutilek denbora gehiago erabiltzen dute eskola-lanerako baino |
| Eskola lanerako eta aisialdirako neskek zien mutilek erabiltzen duten denbora antzekoa da. | | | | | Aisialdirako neskek denbora gehiago erabiltzen dute eskola-lanerako baino |
| **IRAKASLEAK** | | | | | |
| Irakasleok ahaleginak egiten ditugu denboraren erabilera parekidea ikasleekin lantzeko | | | | | Irakasleok ez ditugu ahaleginik egiten denboraren erabilera parekidea ikasleekin lantzeko |
| Irakasleok denboraren erabilera desorekatuaz jabetzen gara | | | | | Irakasleok denboraren erabilera desorekatuaz ez gara jabetzen |
| Arazo honek, gizartean dagoenaren isla denez, irakasleok kezkatzen gaitu | | | | | Arazo honek ez gaitu irakasleok kezkatzen, ez du inongo eraginik eta |
| Berdin baloratzen dugu neska edo mutila izatea etxeko lanetan denbora ematen duena | | | | | Mutila denean etxeko lanetaz denbora ematen duena , berezia izateagatik laudatu egiten dugu Neska bada, berriz, ez dugu ikusten hori egiteko beharrik. |
| Denboraren erabilera parekidea izateko arauak daude, | | | | | Denboraren erabilera parekidea izateko ez dago inongo araurik |

| **AFEKTIBO HEZKUNTZA** | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Irakasleok nork bere burua estimatzeko hezkuntza egokia bultzatzen dugu | | | | | Irakasleok ez dugu pentsatzen nork bere burua estimatzeko hezkuntza bultzatzea beharrezkoa denik |
| Irakasleok ikasleen arteko errespetu harreman izatea exijitzen dugu | | | | | Irakasleok ikasleen arteko errespetu harreman izatea ez dugu exijitzen |
| Ikasleen artean harreman positiboak izan daitezen hezten dugu. | | | | | Ikasleen artean harreman positiboak izatea eremu pribatukoa da. Guri ez dagokigu horretan aritzea |
| Adiskidetasuna giza garapenerako garrantzitsua dela pentsatzen dugu | | | | | Adiskidetasuna giza garapenerako garrantzitsua da, baina eremu pribatukoa da. Guri ez dagokigu hori bultzatzea |
| Irakasleak eta ikasleen arteko harreman positiboak zaintzen ditugu | | | | | Irakasleak eta ikasleen artean distantzia mantendu behar da. |
| Familian harreman positiboak izan ditzaten hezten dugu | | | | | Familian egon daitezkeen harremanek ez dute zer ikusirik ikastetxean egiten dugunarekin |
| Elkartasun harremanak bultzatzen ditugu | | | | | Ikastetxeko dinamikak nork gehiago eta indibidualismoa bultzatzen ditu |
| Ingurunearekiko harreman positiboak izan ditzaten ikasleek informazioa jasotzen dute | | | | | Ingurunearekiko harreman positiboak izan ditzaten ikasleek ez dute informaziorik jasotzen. |
| Animaliekin harreman positiboak | | | | | Animaliekin harreman positiboak |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| izan ditzaten ikasleek informazioa jasotzen dute | | | | | izan ditzaten ikasleek ez dute informazioa jasotzen |
| Objektuekin harreman positiboak izan ditzaten ikasleek informazioa jasotzen dute | | | | | Objektuekin harreman positiboak izan ditzaten ikasleek ez dute informazioa jasotzen |

| SEXU-AFEKTIBOZKO HEZKUNTZA | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Sexu-afektibo harreman osasungarriak izateko hezi ahal izan dezagun formazioa jaso dugu irakasleok | | | | | Sexu-afektibo harreman osasungarriak izateko hezi ahal izan dezagun irakasleok ez dugu formaziorik jaso. |
| Ikastetxean esku-hartze egokia egiteko baliabide onak ditugu | | | | | Ikastetxean ez dugu esku-hartze egokia egiteko inongo baliabiderik |
| Sexu-afektibo hezkuntza programatua dugu eta jarraian eta egonkor egiten dugu. | | | | | Ez dugu sexu-afektibo hezkuntzaren inguruan ezre egiten. Eta zerbait egitekotan era puntualean izaten diren eskaerei erantzuteko. |
| Sexu-afektibozko hezkuntza gure ikastetxean asko baloratzen dugu eta ahal dugun ondona egiten dugu. | | | | | Sexu-afektibozko hezkuntza ez da eskolan landu beharrekoa. Eremu pribatukoa da. |
| Sexu-afektibozko hezkuntza irakasleok egin behar dugula onartua dago gure ikastetxean | | | | | Sexu-afektibozko hezkuntza ikastetxetik kanpoko gauza da. Espezialistak dira egin beharko dutena |
| **INDARKERIAREN PREBENTZIOA** | | | | | |
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Ikastetxean harremanak beti dira errespetuzkoak | | | | | Ikastetxean askotan harremanak bortitzak izaten dira |
| Indarkeriari aurre egiteko irakasleok badugu behar dugun formazioa | | | | | Indarkeriari aurre egiteko irakasleok ez dugu inolako formaziorik |
| Programazioa egiterakoan bizikidetza positiboa ahalbideratuko dituzten jarrerak, prozedurak eta kontzeptuak kontuan izaten ditugu | | | | | Arloen edukiak jarrita daude eta ez dugu denborarik eta ez da irakaslearen lana gai honetaz aritzea. |
| AIAn jasota daude bizikidetza positiboa ahalbideratzen duten neurriak | | | | | AIAn ez daude jasota bizikidetza positiboa ahalbideratzen duten neurriak |
| Eraso sexistei aurre egiteko neurriak ditugu eta maiztasunez birbegiratzen ditugu | | | | | Indarkeria sexistari aurre egiteko ez dugu neurririk. Justiziari dagokio. |
| Eraso arrazistei aurre egiteko neurriak ditugu eta maiztasunez birbegiratzen ditugu | | | | | Eraso arrazistari aurre egiteko ez ditugu neurririk. Justiziari dagokio. |

| PROGRAMAZIOAK | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| | 1 | 2 | 3 | 4 | |
| Ikasgaiaren bidez transmititzen dugun ezagutzak esparru pribatua (etxeko lanak, zaintzak, harremanak, etxeko teknologia..) eta etxekoaren errealitatea zientziaren aztergaitzat hartzen du. | | | | | Ikasgaiaren bidez transmititzen dugun ezagutzak esparru pribatua (etxeko lanak, zaintzak, harremanak, etxeko teknologia..) eta etxekoaren errealitatea zientziaren ez du aztergaitzat hartzen, zerbait subjektiboa izateagatik |
| Eremu teknologikoa lantzen duten emakumeen erreferentzia-ereduak aurkezten ditugu | | | | | Eremu teknologikoa lantzen dutenak gizonak dira |
| Etxeko baliabide teknologikoak erabiltzen dituzten duten gizonen erreferentzia-ereduak aurkezten ditugu | | | | | Etxeko baliabide teknologikoak erabiltzen dituztenak emakumeak dira |
| Ordenagailuarekin, bideoarekin.. lotutako estimuluek zer ikusia dute kultura maskulinoarekin, zein femeninoarekin | | | | | Ez dugu kontuan izaten ordenagailuarekin, bideoarekin.. lotutako estimuluek kultura maskulinoarekin edo femeninoarekin izan dezaten zer ikusia |
| Irakasleok ezagutzen ditugu gure inguruan ikasketen eta lanbideen aukeraketaren inguruko datuak | | | | | Irakasleok ez ditugu gure inguruan ikasketen eta lanbideen aukeraketaren inguruko datuak ezagutzen |
| Programatutako ariketek nor bere burua ezagutzen eta orientatzen laguntzen dute | | | | | Irakasleon esan behar diegu ikasleei zein aukeraketa egin. Ikasleen adin horietan ezin dute irizpiderik izan. |
| Ikasleak erantzukizunean prestatzen ditugu lanbidean, etxeko lanetan, zein gizartea eta politika mailan | | | | | Eskola ikasleak lanbiderako prestatzeko dago, beste esparruak bere bizitza pertsonalarenak dira. |
| Ikasleak prestatzen ditugu lanbidea eta etxeko edo familiaren ardurekin batera ahal izateko. | | | | | Eskola ikasleak lanbiderako prestatzeko dago, etxeko edo familiaren ardurak bizitza pertsonalarenak dira |
| Helburuak eta edukiak zehazterakoan genero-sozializazioagatik nekek eta mutilek izan ditzaketen aldeak kontuan hartzen ditugu. | | | | | Helburuak eta edukiak era berean zehatzen ditugu neskentzako edo mutilentzako |
| Programatzen ditugun jardueretan eta helburuaren arabera, kontuan izaten dugu sexuak bereiztuz lan taldeak egiteko aukera, batzuen eta beste batzuen partehartze aberatsagoa izan dadin | | | | | Lan taldeak egiterakoan irizpide bakarra dugu: mistoak izatearena. Azken finean gure gizartea mistoa da eta |
| **BALIABIDEAK** | | | | | |
| Erabiltzen ditugun baliabide eta materialetan emakumeen eta gizonen agerrera orekatua da | | | | | Erabiltzen ditugun baliabide eta materialetan emakumeen eta gizonen agerrera orekatua izateak ez du inongo garrantzirik |
| Publikoak zein pribatuak | | | | | Publikoak zein pribatuak |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| kontsideratzen diren guneetan, gizonak eta emakumeak berdin agertzen dira | | | | | kontsideratzen diren guneetan, gizonak edo emakumeak agertzek ez du inongo garrantzirik |
| Emakumeek eta gizonek egiten dituzten ekintzak orokorrean ez doaz bat eredu tradizionalekin | | | | | Emakumeek eta gizonek egiten dituzten ekintzek eredu tradizionalekin bat egiteak ez du garrantzirik |
| Emakumeek eta gizonek duten protagonismoa orekatua da | | | | | Emakumeek eta gizonek duten protagonismoa orekatua izateak ez du inongo garrantzirik |
| Erabiltzen dugun hizkuntza behin eta berriro berrikusten dugu. emakumeak izendatzen ditugu, maskulino unibertsala baztertuz, adjetibazioa ez da estereotipatua izaten, aumentatiboak eta diminutiboak era egokian erabiltzen ditugu, adjektiboak ez dira gutxiesgarriak izaten .... | | | | | Irakasleok ondo hitz egiten du eta generoen erabileraz eta feminismotik egiten diren beste iradokizunez ez du hizkuntza zailagoa egiten, |
| **EBALUAZIOA** | | | | | |
| Ebaluazioa irizpideetan kontuan izaten ditugu genero-sozializazioak izan zezakeen eragin ezberdina mutilengan eta neskengan | | | | | Ebaluazio irizpideak ikasle guztientzat berdinak dira |
| Ebaluazioa nork bere burua estimatzen eta ezagutzen laguntzeko erabiltzen dugu | | | | | Ebaluazioak soilik balio du ikasleek jakin dezaten bere jakintza mailaz irakasleek duten iritzia |
| Ebaluazioan prozedurek eta kontzeptuek duten garrantzia jarrerek ere dute, eta hauek ebaluatzeko erabiltzen ditugun tresnak egokiak dira | | | | | Jarrerak ez dugu ebaluatzen eta ebaluatzekotan arloaren nota igotzeko edo jaisteko izaten da, beti ere irakasleak duen pertzepzioaren arabera |
| Hasierako ebaluazioa egiten dugu ikasleek barneratuak izan ditzaketen estereotipo sexistak ezagutzeko | | | | | Ez da hasierako ebaluazioa egiten eta egitekotan ikasleek barneratuak izan ditzaketen estereotipo sexistak ez dira kontuan hartzen. Hori zerbait pertsonala da, |
| Ebaluatzeko erabiltzen ditugun adjektiboak behin eta berriro berrikusten ditugu eta balorazio sexistak eta estereotipatuak ez izaten zaintzen dugu. | | | | | Ebaluatzeko erabiltzen ditugun adjektiboak ez ditugu kontuan izaten. Batzuetan zuzenak ez izan arren, elkar ulertzen dugu. |
| Emaitzetan sexua aldagaia aztertzen dugu | | | | | Emaitzetan sexua aldagaia ez dugu aztertzen. Hauek pertsonen araberakoak izaten dira eta sexuak ez du inongo eraginik |
| Familiek ikasleekiko duten itxaropenak kontuan izaten ditugu eta hauek sexistak badira, esku-hartzeko modua aztertzen dugu | | | | | Familiek beren seme-alabekiko dituzten itxaropenak ez digu axola behar, beren kontuak dira eta. |
| Portaera erasotzaileak, ordenarik gabekoak, higienea, lanen | | | | | Portaera erasotzaileak, ordenarik gabekoak, higienea, lanen |

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| aurkezpena, harremanak izateko moduak...ebaluatzeko erabiltzen ditugun irizpide berberak dira neskentzako, zein mutilentzako. | | | | | aurkezpena, harremanak izateko moduak...ebaluatzeko erabiltzen ditugun irizpideak ez dira neskentzat eta mutilentzako, berez batzuek eta besteek joera ezberdinak dituzte eta hori ezin da aldatu. |